GETXOAKTIBATU!

IKASI, IRAKATSI, ZAINDU, GOZATU
PARTE HARTU

APRENDE, ENSEÑA, CUÍDATE, DIVIÉRTETE
PARTICIPA

AZAROKO ALE BEREZIA 2026

DOAKO JARDUERAK

Getxo bizi ezazu
Ekonomia Sustapena Promoción económica

GETXOAKTIBATU!-k bere komunitatea indartzen du negozio berriekin eta lankidetza handiagoarekin

"Esperientzia zoragarria izan da. Bitxikeria asko ikasi ditut, eta gehiago jakiteko gogoz geratu naiz".


GARBIÑE FERNÁNDEZ
Algorta Yoga Shalaren hitzaldira joana.



"GetxoAktibaTU!-ri esker, nire kabuz lortuko ez nuen publiko berri batengana iritsi ahal izan naiz".


ZHOUXIN CHEN,
Maitasunezko Eskulanena.





"Hitzaldi zoragarri honi esker, eguzkiaren esposizio txarra saihesteko zer egin ikasi dut".

JOSÉ OLASO,
Kenkoi Herbolarioren hitzaldira joana.



"Esperientzia zoragarria izan da, eta konfiantza handia eman dit jarraitu ahal izateko".

LEIRE LEGARRA,
Memelo Estudiokoa.

"GetxoAktibaTU!-ko tailer hau oso esperientzia dibertigarria izan da. Asko gustatu zaigu joko eta erronka desberdinak aurkitzea".

CARMEN CURIEL ETA ERIK,
Cerebrito Pérezen tailerrean parte hartu dutenak.



"Horrelako ekintzak oso beharrezkoak dira, bai merkataritzarentzat, bai herritarrentzat".

MÓNICA ROJO,
GetxoAktibaTU!-ko jardueren antolatzailea.



NEGOZIO ANTOLATZAILE ETA PARTE-HARTZAILEEN TESTIGANTZAK

2026 HONETAKO DATU NABARMENAK

2026an, GetxoAktibaTU!-k berriro erakutsi du programak gaitasuna duela Getxoko negozio eta profesionalak herritarrekin konektatzeko. **Hamaikagarren edizio** honetan **71 jarduera programatu dira, eta 641 pertsonak hartu dute parte**.

Aurtengo edizioaren alderdi nabarmenetako bat ekimenean negozio eta profesional berriak sartzea izan da. **46 negozio antolatzaileetatik, 24k lehen aldiz parte hartu dute** GetxoAktibaTU! programan, bai jarduerak antolatuz, bai espazioak utziz.





641 pertsonak hartu dute parte





71 jarduera programatu





46 negoziok

Lankidetzak ere garrantzi handia izan du programazioan: **programatutako 71 jardueretatik 32 elkarrekin garatu dute negozio edo profesional biren edo gehiagoren artean**. Partaidetza partekatu horrek GetxoAktibaTU!-k konexio berriak sortzeko, trukea bultzatzeko eta udalerriko sare komertzial eta profesionala indartzeko eta udalerriko negozioak ikusarazteko duen gaitasuna islatzen du.

Horrela, GetxoAktibaTU!-k udalerriari bizitza ematen dioten loturak indartzen jarraitzen du, eta gero eta konektatuagoa, parte-hartzaileagoa eta lankidetza berrietara irekiagoa den tokiko komunitateari balioa ematen dio.

BALANTZE OROKORRA

Hamaika edizioren ondoren, GetxoAktibaTU!-k negozio, profesional eta herritarren arteko topaketa, lankidetza eta ikaskuntza gune gisa sendotzen jarraitzen du.

2026ko edizioak parte hartze maila handia izan du, eta bereziki nabarmendu da eragile berriak sartu direlako eta lankidetza jarduera kopuru handiagatik. Berrikuntza horrek GetxoAktibaTU!-ren komunitatea zabaltzen du, eta ezagutzak, espazioak eta esperientziak partekatzeko aukera berriak sortzen ditu.

Hamaika ediziotan zehar, programak 841 jarduera biltzen ditu dagoeneko, denboran zehar jarraitutako ibilbidearen eta bertan parte hartzen dutenen inplikazioari esker garatzen jarraitzen duen ekimenaren isla.